

PRENTSA OHARRA:

IKASTURTEAREN HASIERA ETA OHIKO GEZURRAK

Ikasturtearen hasieraren inguruan STEE-EILASek honakoa adierazi nahi du:

1. 2010-2011 ikasturtean hasi ziren murrizketak gauzaten Irakaskuntza Publikoan Celaá sailburuaren Hezkuntza Sailaren eskutik: matrikularen gorakadari aurre egiteko baliabiderik ez, ordezkapenak betetzeko murrizketak, ikastetxe askotako Lanpostu Zerrendetan mozketak, IRALEn, formazioan...
2. 2011-2012 ikasturte honetan aurreko guztia areagotu egin da: hartutako neurriak mantentzeaz gain, berriro matrikulatu dira ikasle gehiago eta irakasle kopuruak ez du gora egin neurri berean. Gure lehen estimaziotan, bakarrik matrikula berriari aurre egiteko beste 350 irakasle gehiago behar dira. Non daude Hezkuntza Sailaren datuak?
3. Ordezkapenak dira ikastetxeen kezka nagusietako bat: joan den ikasturtean bezala, ordezkapenak atzerapenez betetzen jarraituko direla dirudi, gehienak laugarren eta bosgarren egunetik aurrera. Jakina da, lehen ez bezala, egun horietako ordezkapenak ikastetxean bertan dauden irakasleek bete behar dituztela, beste lanak utzita. Eraso latza da hezkuntza kalitatearen kontra, eskola publikoa ahultzen eta pobretzen duena.
4. Beraz, murrizketak egon badaude eta eguneroko jardunean eragina dute. Horregatik Jaurlearitzak aldarrikatzen duen irakaskuntza publikoaren aldeko apustua ez dugu ikusten, hitz hutsalak dira, propaganda merkea.
5. Bestalde, ez zaigu egokia iruditzen abuztu osoan zehar esleipen prozesuen menpe egon ondoren, irakasle ordezkoek bere plaza zein izango den abuztuaren 31n arratsalde jakitea, hurrengo egunean ikastetxera lanera joateko. Zeresanik ez irailaren 3an 700 plaza inguru oraindik esleitu gabe izatea. Ez al zen ikasturtea irailaren 1ean hasi? Eta, esleipena informatikoa izan arren, betiko arazoek jarraitzen dute: plazei buruzko informazio okerrak, existitzen ez direnak, gaizki eskainitakoak ...
6. Sektorearen gehiengo zabalaren iritziaren aurka sinatu zen eta indarrean dagoen Lan Hitzarmenak ez die inolako galgarik jarri neurri hauei; are gehiago, hauetako batzuk babestu egiten ditu. Behin eta berriro aldarrikatu dugu beharrezkoa dela negoziazioa irekitzea lan hitzarmen berria erdiesteko, lan baldintzak hobetuz eskola publikoa indartuko duena. Horretan jarraitzen dugu.
7. Matrikula garaian gurasoek Eskola Publikoari ematen dioten babesari baliabideekin erantzun behar zaio, modu horretan lortu baitu duen kalitate maila, ez murrizketekin, hauek irakaskuntza publikoa kaltetu baino ez baitute egiten. Bigarren urtez ezarri nahi den dinamika atzerakoi horri aurre egiteko prest gaude eta erantzungo dugu.